

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 596/2018 Erabakia, azaroaren 6koa. Onestea foru aldundi honek emakume nekazarien estatutuaren jarraipen batzordean izango duen ordezkariaren izendapena

Foru Gobernu Kontseiluari dagokio Arabako Foru Aldundiaren ordezkariak izendatzea organismo eta erakunde publiko zein pribatuetan, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoarenak, 8. artikuluko 9. eta 10. apartatuetan xedatutakoarekin bat etorritz.

Beraz, ezinbestekoa da Emakume Nekazarien Estatutuaren Jarraipen Batzordean Arabako Foru Aldundiak izango duen ordezkari izendatzea.

Horregatik, diputatu nagusiaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa: Emakume Nekazarien Estatutuaren Jarraipen Batzordean (Foru Administrazioaren parte hartzea duten erakundeen erregistroko 376 zenbakia) Arabako Foru Aldundiak dituen honako ordezkari hauek kargutik kentzea:

- Maribel Ortiz de Urbina Romero, titular gisa.
- Emérita López de Alda Gil, ordezko gisa.

Bigarrena: Arabako Foru Aldundiaren ordezkari izendatzea, Emakume Nekazarien Estatutuaren.

Jarraipen Batzordean (Foru Administrazioaren parte hartzea duten erakundeen erregistroko 376 zenbakia), ondoren adierazten diren pertsonak:

- Gaizka Jaúregui Gorrochategui, titular gisa.
- Estíbaliz Pilar Sánchez Moreno, ordezko gisa.

Hirugarrena: erabaki honek onartzen den egunetik bertatik aurrera izango du indarra, ALHAOn argitaratuko den eguna edozein dela ere.

Gasteiz, 2018ko azaroaren 6a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZALEZ VICENTE

Diputatu Nagusiaren Kabineteko zuzendaria

NEKANE ZEBERIO GANZARAIN